
KONTZIENTZIA ETA ESPIRITUALITATEA
HENRI LENAERTSENGAN

CONSCIENCIA Y ESPIRITUALIDAD
EN HENRI LENAERTS

Munduaren gozamina aukeratu ahal izatean datza baina isiltasunak beti du azkeneko hitza.

DAVID LE BRETON
EL SILENCIO. APROXIMACIONES

Gauza bat egia izan dadin beharrezkoa da mentalki sortua, psikikoki bizitua eta fisikoki haragiztatua izatea.

HENRI LENAERTS
LA METAMORFOSIS DEL SER

Arima deitu zaion gizonaren kosmos zati hori.

MARÍA ZAMBRANO
HACIA UN SABER SOBRE EL ALMA

ANA ALIENDE
URTASUN

Zientziak oro har eta giza- eta gizarte-zientziek bereziki espiritualtasuna eta kontzientzia aztertzen dituzte tresna teoriko-metodologiko berriak erabiliz. Egun, ikerketa eta azterketa alor garrantzitsua osatzen dute eta zenbait autorerentzat (Tacey, 2004) iraultzailea da, giza-bizipenen dimentsioen ulermena eraldatzen baitu. Zalantzarik gabe, erronka bat sozialean pentsatzeko egun eta, «gure aroko iraultza handien eta gizabanakoen barneko bizitzaren artean duden konexioak nabarmentzea» (Harari, 2018, 13. or.).

Existenziaren alderdirik sakonena ardatz duen kezka soziologiko hori Henri Lenaertsen obran presente dago bere bere sorterrian, Bruselan, egin zituen hastapenetatik. Bere lehenengo marrazki, margolan eta eskulturek mundu fenomenismoaren naturaren azalpena eta gogoaren izatasuna erakusten dute. Horretarako beharrezkoa da «buru irekia izatea eta dogmei uko egitea. Eta, noski, hori zientziaz harago doa mendealdeko gizarte garaikideari eragiten dioten kontu guztiak barne hartzeko. Gure burua bizitzari, heriotzari eta kontzientziari buruzko zalantza unibertsalera irekitzen dugun heinean, gizadia ikusteko dugun modua erabat alda daiteke» (Lommel, 2012, 30. or.).

Bere bizitzaren garai batean, Henrik bere emaztearekin, Marie-Josée Van Broeck margolariarekin, interes artistikoa banatu zuen. Arte Ederrak ikasi zituzten elkarrekin, gazte ezkondu ziren eta harri, zur, brontze, oihal, mihise eta paperarekin lan egiten zuten. Biek egindako obrak sortzeko argitasuna adierazten du. Baiezta genezake bikotearentzat lan- eta bizi-ibilbideak gauza eder eta atsegingarriak jazo daitezen nahikoa denbora izateko askatasuna esan nahi duela.

Marie-Joséeek —bere marrazki, akuarela, pintura eta patchworketan— espazio eta bolumen biribilak

El disfrute del mundo depende de la posibilidad de elegir pero el silencio siempre tiene la última palabra.

DAVID LE BRETON
EL SILENCIO. APROXIMACIONES

Para que una cosa sea verdad es necesario que sea mentalmente concebida, psíquicamente vivida y físicamente encarnada.

HENRI LENAERTS
LA METAMORFOSIS DEL SER

Ese trozo de cosmos en el hombre que se ha llamado alma.

MARÍA ZAMBRANO
HACIA UN SABER SOBRE EL ALMA

La ciencia en general y las ciencias humanas y sociales en particular abordan el estudio de la espiritualidad y la consciencia con nuevas herramientas teórico-metodológicas. En la actualidad, constituyen un campo de investigación e indagación relevante que algunos autores (Tacey, 2004) consideran revolucionario, dado que transforma la comprensión de las dimensiones de la experiencia humana. Un reto sin duda para pensar lo social en la actualidad y, «destacar las conexiones existentes entre las grandes revoluciones de nuestra era y la vida interior de los individuos» (Harari, 2018, pág. 13).

Esta inquietud sociológica que pone el foco en lo más profundo de la existencia está presente en la obra de Henri Lenaerts desde sus inicios en su ciudad natal, Bruselas. Sus primeros dibujos, pinturas y esculturas apuntan a la elucidación de la naturaleza del mundo fenoménico y de la naturaleza de la mente. Esto requiere «tener una mente abierta y renunciar a dogmas. Y, obviamente, eso trasciende la ciencia para englobar todos los asuntos que atañen a la sociedad occidental contemporánea. Al tiempo que abrimos nuestra mente a las incógnitas universales sobre la vida, la muerte y la conciencia, nuestro modo de ver a la humanidad puede sufrir una profunda transformación» (Lommel, 2012, pág. 30).

Durante una parte de su vida Henri compartió con su esposa, la pintora Marie-Josée Van Broeck, la inquietud artística. Estudiaron juntos Bellas Artes, se casaron jóvenes y se dedicaron a trabajar con piedra, madera, bronce, tela, lienzo y papel. La obra realizada por ambos expresa la claridad para crear. Podríamos afirmar que la trayectoria profesional y vital para la pareja significa una libertad de tener el tiempo suficiente para que ocurran cosas bellas y gratificantes.

Marie-Josée —en sus dibujos, acuarelas,

sortzen ditu. Trazu eta koloreekin saiakuntzak egiten ditu. Pieza batzuk minimalistak dira, beste batzuk ausartak eta apurtzaileak. Indiara doa, Turkia, Iran, Afganistan eta Pakistanen barna, eta Henrirekin batera zentzumenak pizten zaizkio eta bertako paisaiez, arkitekturaz, koloreez eta biztanleez maitemintzen da. «Fruta guztien zaporea, zukua, usaina ezezaguna da guretzat eta mundu arraro eta ezohiko batean bizitzera bultzatzen gaituzte. Hinduismoa ez da ulertzen den gauza bat, bizitzen den gauza bat baizik. India ez da abstrakzioa, India sentsazioa da» (Lenaerts, 1966).

Henrik sei urte emango ditu Varanasin. Zientzia vedikoa, naturaren legeak, unibertsoaren osaera eta haren garapena aztertzen emango ditu urte horiek. Prozesu horretan gogoaren eta adimenaren zolitasuna biziko du eta kontzientzia puruko ozeano batean —Atma— murgiltzen da, ordura arte bizi izan zituen ulermen-prozesuekin zerikusirik ez zuena. Honela idatzi zuen: «[...] Indiarantz abiatu nintzen Renault R4 batean, andrearekin. [...] Giza psikearen neurtu-ezintasuna ezagutzeko asmoarekin joan nintzen. Nire maisuarekin heldu nion berriro Erritu Vedikoa ikasteari. Hainbat eta hainbat arratsalde igaro genituen bere etxe xumean, kandela baten argitan, testuak aztertzen. Denbora bat eman eta gero, “zurekin Vedak gozo bihurtzen dira” [...] eta hori niretzat idor eta astunak direla [...]. Han ulertu nuen benetako erritua eguneroko bizimoduko ekintzak direla» (Lenaerts, 1997, 33. or).

Marie-Josée Bruselara bueltatu zen eta eskolak ematen eta sortzen jarraitu zuen. Henrik eta Marie-Josée bide ezberdinak hartu zituzten urte horietan. Bizitzan zituzten jakin-nahiak aldatuz doaz. Heriotza Henriren egunerokotasunean sartzen da bizitzatik banaezina den lotura baten moduan. «Heriotza, ez da bizitza baina bizitzan gertatzen da» (Zambrano, 1973, 197. or.) eta bizitzen jarraituzera gonbidatzen du heriotza onerako bide bakar gisa.

Heriotzak Marie-Josée ezustean eta goizegi harrapatu zuen Marie-Josée, isiltasunean, bakarrik, beldurtuta, Bruselan zuen etxean. Mihise batean idatzi zuen «bizitzan dena ez da edertasuna eta armonia».

Henrik ezezaguneranzko bidaia bati ekin zion giza-egoerari buruz meditatzeke. Bere obrak «meditazioa» eta pizgarri bat dira bibrazio berezi baten baldintzak sortzeko, bizi dugun eta bizi gaituen unibertsoaren parte garela sentiarazten diguna, «berehalako boterea sorrarazten duen orainaren esperientzia bat» (Edelmann, 2006, 309. or.).

pinturas y *patchwork*— crea espacios y volúmenes rotundos. Experimenta con los trazos y el color. Algunas piezas son minimalistas, otras arriesgadas y rompedoras. En su viaje a la India, a través de Turquía, Irán, Afganistán y Pakistán, cultiva junto a Henri los sentidos y se enamora del paisaje, de la arquitectura, del colorido y de sus gentes. «Todas las frutas, por su gusto, su zumo, su perfume desconocido para nosotros, nos hacen vivir en un mundo extraño e inhabitual. El hinduismo no es una cosa que se comprende sino una cosa que se vive. La India no es abstracción, la India es sensación» (Lenaerts, 1966).

Henri se queda durante seis años en Varanasi. Se dedica a estudiar la ciencia védica, las leyes de la naturaleza, la constitución del universo y su desarrollo. En ese proceso experimenta la sutileza de la mente y el intelecto y se adentra en un océano de conciencia pura —Atma— muy diferente a cualquier proceso de comprensión vivido por él hasta entonces. «[...] partí para la India en un Renault R4 con mi mujer, [...] para descubrir la inconmensurabilidad de la psique humana. Con él [mi maestro] retomé el estudio del Ritual Védico. Pasamos en su modesta vivienda tardes y tardes, a la luz de una vela, analizando textos. Después de un cierto tiempo me dijo “con usted los Vedas se vuelven dulces” [...] y eso que para mí son áridos [...]. Allí comprendí que el auténtico ritual son los actos de la vida cotidiana» (Lenaerts, 1997, pág. 33).

Marie-Josée regresa a Bruselas y continúa impartiendo clases y creando. Las experiencias de Henri y Marie-Josée transitan durante estos años senderos distintos. Las inquietudes vitales se van transformando. La muerte entra en la cotidianidad de Henri como un vínculo indisoluble con la vida. «La muerte, que no siendo vida ocurre en la vida» (Zambrano, 1973, pág. 197) e invita a seguir viviendo como el único camino para la buena muerte.

La muerte le sorprende a Marie-Josée tempranamente en silencio, en soledad, con miedo, en su casa de Bruselas. En un lienzo escribe «todo en la vida no es belleza y armonía».

Henri inicia un viaje a lo desconocido, donde meditar sobre la condición humana. Sus obras son «meditación» y un estímulo para crear las condiciones de una vibración singular, que nos hace sentir parte del universo que habitamos y nos habita, «una experiencia en el presente que infunde un poder inmediato» (Edelmann, 2006, pág. 309).

Azkar joan zen, heriotza harrapatu zuen. Mantso joan zen, heriotzak harrapatu zuen. Normal ibili zen, bera heriotza zela ohartu zen.

ALEJANDRO JODOROWSKY,
ENCUENTROS. EL TESORO DE LA SOMBRA

Fue rápido, alcanzó la muerte. Fue lento, la muerte le alcanzó. Caminó normal, se dio cuenta de que él era la muerte.

ALEJANDRO JODOROWSKY,
ENCUENTROS. EL TESORO DE LA SOMBRA

ZENTZU KOMUNA

Egia espiritualak ez da esoterikoa eta konplexua den zer bait, zentzu komuna baino ez da. Garapen espiritualak meditazio intentso, aktibo eta eraginkorraren emaitza da. Nor bere buruarekin trebea eta delikatua, barea, izatea garrantzitsua da pentsamenduak zein zaratsatuak izan daitezkeen ohartzeko. Iraganeko pentsamendu baten eta etorkizuneko pentsamendu baten arteko tartea luzatzean datza. Hori da meditazioa, zahurgarritasunaren beraren materialarekin egiten den eguneroko lan bat, barne-askatasunerantzko ibilbide bat.

Bide espiritualak logika eta dinamika propioak ditu. Beharrezkoa du uneoro azaleratzen diren aldaketa sotil horiek hautemateko harmena izatea. Osotasuna eta barne-ordena zuzenean bizitzeko prestatzen duten adorea eta pazientzia. Harremantzeko modua aldatzean datza, zertarako eta handiagoa den zer baitera irekitzeko eta, bertan, kontziente izanda bizitzeko, niaren mugak gaindituz. «Maisu, non dago jainkoa? Hementxe. Non dago paradisua? Hementxe. Eta infernua? Hementxe. Dena hementxe dago. Oraina, iragana, etorkizuna hementxe daude. Hementxe dago bizitza eta hementxe dago heriotza. Hemen aurkakoak nahasten dira. Eta ni non nago? Zu zara hemen ez dagoen bakarra» (Jodorowsky, 2003, 83. or.).

Bakardadea eta isiltasuna barru-barrukoaren bi ezaugarri direla kontuan hartuta, esan dezakegu *Soledad* (Bakardadea) izena duen eskulturak (bildumako 85. or.), lehenengo harriz eta gero brontzez (1959) egin zenak, adierazten duela gauzak dagokien unean, haietara moldatuz, loturak hautsiz, zabalduz eta topaketa irrikatuz hautemateko gaitasuna. Jasotzeko egoera egokiak eraginez. Isiltasunaz elikatzen den ikuspegi ez duala. Isiltasuna barruan daramagun hori emateko jolas gisa. Bestearen eskaerak emankor bihurtuz. Dohaina hor sortzen da eta irekiak diren gorputz eta buru bat behar ditu. Honela idatzi zuen d'Orsek bere *Biografía del Silencio* liburuan: «Uste dut bila gabiltzanean dugun horri uko egiten diogula. Bilaketa autentiko orok azkenean geunden tokira bidaltzen gaitu. Seinalatzen duen hatzak, azkenean, buelta emango du eta gu seinalatuko

SENTIDO COMÚN

La verdad espiritual no es algo esotérico y complejo, sino simple sentido común. La naturaleza del desarrollo espiritual es fruto de una práctica de meditación intensa, activa y eficaz. Es importante ser hábil y delicada con una misma, serena, para darse cuenta de lo ruidosos que pueden llegar a ser tus pensamientos. Se trata de prolongar el intervalo entre un pensamiento pasado y el pensamiento futuro. Eso es la meditación, un trabajo cotidiano con el material de la propia vulnerabilidad, un itinerario de liberación interior.

La senda espiritual tiene su propia lógica y su propia dinámica. La práctica requiere receptividad para apreciar esos cambios sutiles, que emergen en cada instante. Valor y paciencia que preparan para la experiencia directa de la totalidad y el orden interno. Se trata de un cambio en la forma de relacionarse para abrirse a algo más grande donde vivir conscientemente, superando los límites del yo. «Maestro, ¿dónde está dios? Aquí mismo. ¿Dónde está el paraíso? Aquí mismo. ¿Y el infierno? Aquí mismo. Todo está aquí mismo. El presente, el pasado, el futuro, están aquí mismo. Aquí está la vida y aquí está la muerte. Es aquí donde los contrarios se confunden. ¿Y yo dónde estoy? Tú eres el único que no está aquí» (Jodorowsky, 2003, pág. 83).

Considerando la soledad y el silencio como dos atributos de lo íntimo, podemos afirmar que su escultura *Soledad* (catálogo, pág. 85), primero realizada en piedra y, posteriormente, en bronce (1959), expresa la capacidad de percibir las cosas momento al momento, acomodándose a ellas, desposándose, derramándose y anhelando el encuentro. Provocando las condiciones adecuadas para recibir. Una visión no dual que se nutre del silencio. El silencio como un juego para dar aquello que llevamos dentro. Para que la demanda del otro lo fecunde. El don se crea ahí y precisa de un cuerpo y una mente abiertas. «Porque mucho me temo» — escribe d'Ors en su libro *Biografía del Silencio*— «que cuando buscamos solemos rechazar lo que tenemos. Ahora bien, toda búsqueda auténtica acaba remitiéndonos adonde estábamos. El dedo que señala termina por darse la vuelta y apuntarnos» (d'Ors, 2014, pág. 22). Este es el gran

gaitu» (d’Ors, 2014, 22. or.). Hori da giza-espirituaren lorpen handia. Errealitatean, zuk egiten duzun zerbait. Bake espirituala norberak erdiesten du. Samintasunik eta eszeptizismorik gabe.

Kondaira zahar batek azaltzen du garai batean gizon guztiak jainkoak zirela. Hainbeste abusatu omen zuten haien jainkotasunaz eta botereaz ezen Brahmak, Jainko Gorenak, erabaki zuen haiei jainkozko boterea kentzea eta leku helezin batean ezkutatzea. Ezkutatzeko toki aproposa topatzea arazo handia izan zen. Arazoa konpontzeko, bigarren mailako jainkoak deitu zituzten eta honakoa proposatu zuten:

— Gizonaren jainkotasuna lurperatuko dugu.

Brahmak erantzun zuen:

— Ez da nahikoa izango. Aitzurtu eta aitzurtu, azkenean aurkituko du.

Orduan, jainkoek proposatu zuten:

— Kasu horretan, jainkotasuna ozeanoen sakonenean ezkuta dezakegu.

Brahmak erantzun zuen:

— Ez, lehenago edo beranduago gizonak ozeanoen sakontasunak arakatuko ditu eta segur aski egunen batean aurkituko du.

Orduan bigarren mailako jainkoek esan zuten:

— Ez dakigu non ezkutatu. Antza denez, lurrean zein itsasoan edonon jarrira ere ezinezkoa da aurkituko ez duen toki bat topatzea.

Eta Brahmak esan zuen:

— Hauxe egingo dugu gizonaren jainkotasunarekin: gizonak bere baitan duen tokirik sakonenean jarriko dugu. Hori izango da bilatzea bururatuko ez zaion toki bakarra.

Kondairak dio, oso aspalditik, gizonak lurrari buelta eman diola, arakatu duela, eskalatu, nabigatu, aitzurtu, baita unibertsoa eta beste mundu batzuk aztertu ere barruan duen zerbaiten bila.

IPUIN HINDUA, ANONIMOA

PAULETTEN LORATEGIA

Paulettek oso gaztetatik posatu zuen Henrimentzat. Ordu asko geldirik, isilik, noizbait besoak jasota, biluzik... trazu bakoitzean, zirriborro bakoitzean, marrazki bakoitzean, molde bakoitzean bere bizi-erritmoa harrapatzen zuen artistaren begirada isilera abandonatuta. Richard Sennetten hitzetan, Henrik artisautzan dioten moduan, alegia «denboraren moteltasuna [...] gogobetetze-iturri gisa» hartuta, garatzen zituen bere trebetasunak, eta «praktika guregan haragitzen da eta trebetasunak eta gure izateak bat egiten dute» (Sennett, 2010, 362. or.).

logro del espíritu humano. Algo que en realidad haces tú. La paz espiritual la conquista cada uno. Sin amargura ni escepticismo.

Una vieja leyenda hindú explica que hubo un tiempo en el que todos los hombres eran dioses. Se dice que abusaron tanto de su divinidad y poder que Brahma, el Dios Supremo, decidió quitarles el poder divino y esconderlo en un lugar inaccesible. El gran problema fue encontrar el escondite apropiado. Cuando los dioses menores fueron convocados para resolver el problema, propusieron:

— Vamos a enterrar la divinidad del hombre bajo la tierra.

Brahma respondió:

— No será suficiente. Cavará y cavará y al final la encontrará.

Entonces los dioses propusieron:

— En este caso podemos esconder la divinidad en lo más profundo de los océanos.

Brahma respondió:

— No, pues tarde o temprano el hombre explorará las profundidades de los océanos y seguramente un día la encontrará.

Entonces los dioses menores dijeron:

— No sabemos dónde esconderla. Parece que no hay un lugar en el cielo ni en la tierra ni en el mar, donde no pueda descubrirla algún día.

Y Brahma dijo:

— Esto es lo que haremos con la divinidad del hombre: la vamos a colocar en lo más profundo de sí mismo. Será el único lugar donde nunca se le va a ocurrir buscar.

Dice la leyenda que, desde la noche de los tiempos, el hombre ha dado la vuelta a la tierra, la ha explorado, escalado, navegado, cavado, incluso explorado el universo y otros mundos buscando algo que tiene en su interior.

CUENTO HINDÚ, ANÓNIMO

EL JARDÍN DE PAULETTE

Paulette posó para Henri desde joven. Muchas horas quieta, callada, con los brazos en alto en alguna ocasión, desnuda,... abandonada a la mirada silenciosa del artista que va captando su ritmo vital en cada trazo, en cada esbozo, en cada dibujo, en cada molde. Henri desarrollaba sus habilidades en los términos artesanales de «lentitud del tiempo como fuente de satisfacción» apuntados por Richard Sennett, donde «la práctica se encarna en nosotros y hace que la habilidad se funda con nuestro ser.» (Sennett, 2010, pág. 362).

*Henri Lenaerts
Fundazioa
(Irurre, Nafarroa,
Espainia).*

*Fundación
Henri Lenaerts
(Irurre, Navarra,
España).*



Paulette eta Henrik ordu asko eman zituzten elkarrekin lanean. Henrik testuak eskuz idazten zituen; gero, Paulettek makinaz transkribatzen zituen. Loturak apurtuz eta elkarrengan konfiatuz tapiz ederrak egin zituzten, eta maitasuna eta artea oso espirituala zen zerbait bilakatu zuten. Lenaertsek honela idatzi zuen: «Gure bizitza egunez egun eraikitzen dugu, orduz ordu, aldare vedikoa adreiluz adreilu eraikitzen den moduan. Gure bizitza Jainkoaren distirari egindako sakrifizio-aldarea da edo izan beharko luke, hau da, gai garen handiena lortzeari egindakoa [...] “norbanako unibertsalizatu sortzailea”». (Lenaerts, 1997, 36. or.).

Pauletteren Lorategiaren (2012) eta Lenaerts Zentroaren (2016) inaugurazioen harira, artista garaikideak bildu zituen erakusketa bat egin genuen. *La cruzada de los niños (Haurren gurutzada)* izenburuarekin, gonbidatzen genuen jakinduriaren dialektikara jolastera, zeinak enigmak eta ezagutzak barne hartzen dituen. Gure asmoa zen —eta orain ere bada— sentsibilitate intimoa sortzen laguntzea egia kontzienteak eskuratzeko urratsak ematen, mundu sotiletara ematen duten atak irekitzen. Gure adimenaren alderdi praktikoa, afektibo eta sinbolikoa aztertzeraz gonbidatzen. Errealitate berriak onartzeko aurrera egitea ahalbidetzen duten sentimendu eta sentsibilitatea.

Baina harea, harkaitz eta elurretan barrena luzaroan ibili ostean, halako batean bide bat topatu zuen printze txikiak. Eta bide guztiek gizakietara eramaten dute.

—Egun on —esan zuen.

Lorategi bat zen, loretan zeuden arrosoz betea.

—Egun on —esan zuten arrosek.

Printze txikia begira geratu zitzaion. Denak bere lorearen antzekoak ziren.

—Nortzuk zarete zuek? —galdegin zien, harri eta zur.

—Arrosak gara —esan zuten arrosek.

—Oi...! —atera zitzaion printze txikiari.

Eta oso zorigaiztoko sentitu zen. Bere arrosak esana zion unibertsoan bere espezieko bakarra zela. Eta hona hemen bost mila, denak ere elkarren antzekoak, lorategi bakar batean!
«Hau ikusiz gero...», esan zion bere buruari,
«hutsaren hurrengo sentituko zen. Eztul batean hasiko zen eta, lotsagarri ez geratzearen, itxurak egingo zituen hiltzen ari zela erakusteko. Nik ere itxurak itxurak egin beharko nituen hura zaintzen ari nintzela erakusteko, zeren, bestela, ni lotsagarri uztearen, bere burua benetan hiltzen utziko baitzuen...»

Paulette y Henri trabajaron muchas horas juntos. Henri escribía textos a mano que Paulette transcribía a máquina. Desprendiéndose y confiando hicieron hermosos tapices y convirtieron el amor y el arte en algo genuinamente espiritual. «Construimos nuestra vida día a día, hora a hora, así como el altar védico se construye ladrillo a ladrillo. Nuestra vida es —o debería ser— un altar sacrificial erigido a la gloria de Dios, es decir a la consecución de lo más elevado de lo que somos capaces [...] “el individuo universalizado creador”» (Lenaerts, 1997, pág. 36).

Con motivo de la inauguración del Jardín de Paulette (2012) y del Centro Lenaerts (2016), realizamos una exposición que congregó a un conjunto de artistas contemporáneos. Con el título *La cruzada de los niños*, invitábamos a jugar a la dialéctica del saber, que incluye enigmas y conocimientos. Nuestra pretensión era —igual que ahora— contribuir a crear una sensibilidad íntima, dando pasos en la adquisición de verdades conscientes, abriendo la puerta a mundos sutiles. Invitando a indagar en la índole práctica, afectiva y simbólica de nuestra inteligencia. Sentimiento y sensibilidad que permiten abrirse paso para acoger nuevas realidades.

Pero sucedió que el principito, habiendo caminado largo tiempo a través de las arenas, de rocas y de nieves, descubrió al fin una ruta. Y todas las rutas van hacia la morada de los hombres.

—Buenos días —dijo

Era un jardín florido de rosas.

—Buenos días —dijeron las rosas.

El principito las miró. Todas se parecían a su flor.

—¿Quiénes sois? —les preguntó, estupefacto.

Somos rosas —dijeron las rosas.

—¡Ah! —dijo el principito.

Y se sintió muy desdichado. Su flor le había contado que era la única de su especie en el universo. Y he aquí que había cinco mil, todas semejantes, en un solo jardín.

«Se sentiría bien vejada si viera esto —se dijo; tosería enormemente y aparentaría morir para escapar al ridículo. Y yo tendría que aparentar cuidarla, pues, si no, para humillarme a mí también, se dejaría verdaderamente morir...»

Luego, se dijo aún: «Me creía rico con una flor única y no poseo más que una rosa ordinaria. La rosa y mis tres volcanes que me llegan a la rodilla, uno de los cuales quizá está apagado para siempre. Realmente no soy un gran príncipe...» Y, tendido sobre la hierba, lloró.

Gero, jarraitu zuen bere artean: «Ene lore bakarrarekin aberats sentitzen nintzen, eta arrosa arrunt bat besterik ez daukat. Arrosa eta belaun parera heltzen zaizkidan hiru sumendiak, bat betiko itzalia agian. Horrek guztiak ez nau oso printze handia egiten...». Eta belarretan etzanik, negar egin zuen.

ANTOINE DE SAINT-EXUPÉRY, *PRINTZE TXIKIA*

Carmen Martín Gaitek (Martín Gaité, 1997) *Printze txikia* obrari buruz egin zuen hitzaurrean nabarmentzen du Antoine de Saint-Exupéryk urrunean dagoenak nola erakartzen duen, «hain altu dagoena non inoiz ez duen azter ez uler dadin uzten. Hori dela eta, astro helezinek txikitatik liluratu zutelako, hegan egin nahi izan zuen, bere hegoak Ikarorenak bezala urtu egin zitezkeela zekien arren» (Martín Gaité, 1997, 9. or.). Lenaertsek ere Ikaroren hegaldian parte hartu zuen hainbatetan brontzean galdatuz. Marie-Josée eta Pauletterekin heriotzaren horizontea partekatu zuen eta hartan murgildu zen, konfiatuta, «begi arruntek ikusi ezin duten errealitatearen bizipen-ziurtasunarekin». (Edelmann, 2006, 308. or.).

Esan genezake, Kortadiren hitzetan, Henri «artista ibiltaria» zela, «jantzia, irekia eta erlijioso, kutsu panteista argiak zituen» (ikus 12. or.).

Ezagutza zuzenean bilatzen du eta, artearen eta esperientzia estetikoaren bidez, izateari berari datxekion existentziaren dimentsio espirituala aurkitzen du. Emozio estetikoak, sakratuak eta sentimendu erlijiosoak bat egiten dute sentsibilitatez kargatutako osotasunaren bila non, meditazioaren bidez, existentziaren muinera iritsiko den eta batasunaren misterioa argitzen hasten den. Henrik «izatearen metamorfosis» dela dio, errealitate organikoak pixkanaka direla, osatzen direla, hartzen du bere burua, benetan ulertzen duela, «unibertsoa behin eta berriro jaio eta hiltzea da gero berriro jaiotzeko». Heriotzak ez du amaiera esan nahi, bilakaeraren parte da (Maillard, 2014, 599-600 or.).

En el prólogo que Carmen Martín Gaité (Martín Gaité, 1997) hace de la obra *El principito* destaca la atracción que Antoine de Saint-Exupéry posee por lo distante, «lo que está tan alto que jamás se deja explorar ni entender. Por eso, por el hechizo que desde la primera edad ejercieron sobre él los astros inaccesibles, quiso volar, aun a sabiendas de que sus alas podrían derretirse como las de Ícaro» (Martín Gaité, 1997, pág. 9). Lenaerts participó también de la osadía del vuelo de Ícaro fundiéndolo en bronce en varias ocasiones. Con Marie-Josée y Paulette compartió el horizonte que presenta la muerte perdiéndose en ella, confiado, «con la certidumbre vivencial de una realidad invisible a los ojos ordinarios» (Edelmann, 2006, pág. 308).

Podemos decir, en palabras de Kortadi, que Henri era «un artista trotamundos, culto, abierto y religioso de claros acentos panteístas» (ver página 12).

Busca en primera persona el conocimiento y encuentra, a través del arte y la experiencia estética, la dimensión espiritual de la existencia inherente al ser mismo. La emoción estética, lo sagrado y el sentimiento religioso confluyen en una búsqueda de plenitud cargada de sensibilidad donde, mediante la meditación, llega al meollo de la existencia y se va revelando el misterio de la unidad. Henri se refiere a sí mismo en términos de «metamorfosis del ser», de una comprensión profunda de que las realidades orgánicas van siendo, se van constituyendo, «el universo es un continuo nacer y morir para nacer de nuevo». La muerte no significa el final, es parte del devenir (Maillard, 2014, págs. 599-600).

*Ordua urre koloreko goiz eder horretan iritsi zen
Aurobindo*

*Paulette begirada urdineko aingerua
Adiskidetasuna asetzen zuena,
Beti eskuragarri,
Bere bidea egiten zuen
samurtasunaren tontor espiritualetarantz.*

*Adorearen Pauletek
humorearenak, irribarrearenak
gauari aurre egin zion
maitagarrien ipuin bateko
ipurtargi baten moduan*

*Pauletek eman dizkie
hegoak hainbeste maite zituen txoriei
musa duen
museo honi.*

*Estatuen isiltasunak
bere arima zain dezan.*

YVES ROBIN, 2013KO OTSAILAK 13¹

*La hora había llegado en esa espléndida
mañana de oro
Aurobindo*

*Paulette el ángel de la mirada azul
Donde se colmaba la amistad,
Disponible siempre,
Trazaba su camino
hacia las cimas espirituales de la ternura.*

*Paulette del coraje
del humor, de la sonrisa
afrontó la noche
como una luciérnaga,
en un cuento de hadas*

*Paulette ha dado
las alas de los pájaros que tanto amaba
a este museo
del que es la musa.*

*Que el silencio de las estatuas
velen sobre su alma*

YVES ROBIN, 13 DE FEBRERO DE 2013¹

1. Henri Lenaertsen dizipulu eta Henri Lenaerts Fundazioaren patrono den Yves Robinek orain arte argitaratu ez den poema hau idatzi zuen Paulette Garin zendu zen egunean.

1. Yves Robin, discípulo de Henri Lenaerts y patrono de la Fundación Henri Lenaerts, escribió este poema, inédito hasta ahora, el día que murió Paulette Garin.

DOKUMENTAZIOA

Lenaerts, H. [1966]. *Viaje a la India*. Argitaragabea. Henri Lenaerts Fundazioaren artxiboa.

BIBLIOGRAFIA

Edelmann, É. [2006]. *Jesús hablaba arameo*. En busca de la enseñanza original. Bartzelona: Obelisco.

Harari, Y. N. [2018]. *21 lecciones para el siglo XXI*. Bartzelona: Debate.

Jodorowsky, A. [2003]. *El tesoro de la sombra*. Madril: Siruela.

Jung, C. G. [2016]. *Escritos sobre espiritualidad y trascendencia*. Madril: Trotta.

Kortadi, E. [2018]. *El cuerpo humano en la escultura y las artes de Henri Lenaerts*. Iruña. Testu hau katalogo honen parte da [10-22 orrialdeak].

Lenaerts, H. [1997]. Autobiografía. Testu hau lehendabiziko aldiz argitaratzen da katalogo honetan [24-43 orrialdeak].

Lommel, P. V. [2012]. *Consciencia más allá de la vida. La ciencia de la experiencia cercana a la muerte*. Girona: Atlanta.

Maillard, C. [2014]. *India*. Valentzia: Pre-Textos.

Martín Gaité, C. [1997]. *Entre el cielo y la tierra*. Madril: Madrid.

d'Ors, P. [2014]. *Biografía del Silencio*. Madril: Siruela.

Sennett, R. [2010]. *El artesano*. Bartzelona: Anagrama.

Tacey, D. [2004]. *The Spiritual Revolution. The Emergence of Contemporary Spirituality*. New York: Brunner/Routledge.

Zambrano, M. [1973]. *El hombre y lo divino*. Mexiko: Fondo de Cultura Económica.

DOCUMENTACIÓN

Lenaerts, H. [1966]. *Viaje a la India*. Inédito. Archivo de la Fundación Henri Lenaerts.

BIBLIOGRAFÍA

Edelmann, É. [2006]. *Jesús hablaba arameo*. En busca de la enseñanza original. Barcelona: Obelisco.

Harari, Y. N. [2018]. *21 lecciones para el siglo XXI*. Barcelona: Debate.

Jodorowsky, A. [2003]. *El tesoro de la sombra*. Madrid: Siruela.

Jung, C. G. [2016]. *Escritos sobre espiritualidad y trascendencia*. Madrid: Trotta.

Kortadi, E. [2018]. *El cuerpo humano en la escultura y las artes de Henri Lenaerts*. Pamplona. Este texto forma parte de este catálogo [páginas 10-22].

Lenaerts, H. [1997]. Autobiografía. Este texto se publica en este catálogo por primera vez [páginas 24-43].

Lommel, P. V. [2012]. *Consciencia más allá de la vida. La ciencia de la experiencia cercana a la muerte*. Girona: Atlanta.

Maillard, C. [2014]. *India*. Valencia: Pre-Textos.

Martín Gaité, C. [1997]. *Entre el cielo y la tierra*. Madrid: Madrid.

d'Ors, P. [2014]. *Biografía del Silencio*. Madrid: Siruela.

Sennett, R. [2010]. *El artesano*. Barcelona: Anagrama.

Tacey, D. [2004]. *The Spiritual Revolution. The Emergence of Contemporary Spirituality*. New York: Brunner/Routledge.

Zambrano, M. [1973]. *El hombre y lo divino*. México: Fondo de Cultura Económica.